

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laudion gazte langabeak kontratatzeke diru-laguntzen deialdia egiten duen alkate udalburua- ren 2025eko abenduaren 4ko dekretuaren laburpena

BDNS(Identif.): 873247

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/873247>).

Lehenengoa. Onuradunak

1. Kontratatorako laguntza hauen onuradun izan ahalko dira besteren konturako langileekin lan-kontratuak formalizatzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko pribatuak, edozein forma juridiko dutela ere, baldin eta deialdi honetan zehaztutako baldintzak betetzen badituzte eta lantokia eta jarduera ekonomikoa Audioko udal-mugartean badute.

2. Honako hauek ezin izango dute dirulaguntzarik jaso:

– Enpresa edo erakunde eskatzaileak, baldin eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan jasotako egoeraren batean badaude.

– Administrazio publikoak, sozietate publikoak eta horietako edozeini lotutako edo horien mendeko erakundeak.

– Enplegu-zentro bereziak.

3. Eskatzailea nortasun juridikorik gabeko erakundea bada, identifikazio fiskaleko zenbaki bat izan behar du, eta kontrakoa frogatzen ez den bitartean, Kode Zibilaren 393. artikuluan ezarritakoa ulertuko da, entitatean parte hartzen duenari dagokion zenbatekoari dagokionez.

Bigarrena. Helburua

Besteren konturako langileekin lan-kontratuak formalizatzen laguntzea, enplegua sortzera bideratutako udal-estrategiaren barruan.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dekretua, 2025eko abenduaren 4koa, alkate-udalburuarena, Laudion gazte langabeak kontratatzeke dirulaguntzen deialdia egiten duena.

Laugarrena. Zenbatekoa

1. Gehienez 2.000,00 euroko laguntza emango da hiru hilabeteko lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko, eta gehienez 4.000,00 euroko laguntza sei hilabeteko edo gehiagoko lanaldi osoko lan-kontratu bakoitzeko. Laguntzaren azken zenbatekoak ezingo du gairatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen ehuneko 75, kontratu-amaieragatiko kalte-ordainak eta enpresaren konturako Gizarte Segurantzako kuota barne. Lanaldi partzialeko edo hiru eta sei hilabete arteko iraupeneko kontratuen kasuan, laguntza lanaldiaren eta/edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

2. Adierazitako dirulaguntzen zenbatekoak ehuneko 10 handituko dira, kontratuak emakumeekin egiten direnean. Dirulaguntzaren azken zenbatekoak, igoera horiek aplikatzean, ezin izango du inola ere gainditu kontratatutako pertsonen soldata-kostuen eta Gizarte Segurantzako kostuen ehuneko 100, kontratu-amaieragatiko kalte-ordainak eta enpresa kontratatzailearen konturako Gizarte Segurantzako kuota barne.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

15 egun baliiodun, laburpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laudio, 2025eko abenduaren 4a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ